

PREZIO PUBLIKOEN SALBUESPENAK ETA MURRIZKETAK REDUCCIONES Y EXCENCIONES DE PRECIOS PÚBLICOS

Ikasle agurgarria,

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Mondragon Unibertsitatearen artean sinatuta duten hitzarmenari esker, ikasle unibertsitarioek 2011-12 ikasturtean ikasketengatik ordaindu beharreko prezio publikoen zenbateko osoa edo zati baten itzulketara eskatu ahal izango duzue; beti ere ondoren zehazten diren familietako senitartekoak bazarete:

EGOERAK	Aurkeztu beharreko agiriak	Laguntzaren zenbatekoa	Agiriak aurkezteko azken eguna
Maila orokorreko familia ugariko kide izatea.	-D1; -D2	Prezio publikoen % 50a itzuliko zaie.	2011.09.30
Maila bereziko familia ugariko kide izatea.	-D1; -D2	Prezio publikoen % 100a itzuliko zaie.	2011.09.30
MGEPeke ikaslea izanik, % 33ko edo gehiagoko ezgaitasun maila izatea.	-D1; -D3;	Prezio publikoen % 100a itzuliko zaie.	2011.09.30
Ikaslearen familian (hau da, gurasoak, anaia-arrebak eta familiak legez ume-ordetzat hartu dituztenak) % 65eko edo gehiagoko ezgaitasun maila duen kideren bat egotea.	-D1; -D3; -D4; -D5	Prezio publikoen % 100a itzuliko zaie.	2011.09.30
Ekintza terroristaren biktimek, euren ezkontideek, seme-alabek edo biktima horiek ekintza terroristak gertatu baino lehen legez ume-ordetzat hartutakoek.	-D1; -D6; -D7; -D5	Prezio publikoen % 100a itzuliko zaie.	2011.09.30
Genero-indarkeria jasan duten pertsonak eta horien seme-alabek.	-D1; -D8; D7	Prezio publikoen % 100a itzuliko zaie.	2011.09.30
Guraso bakarreko familiak (guraso bakarreko familiatzat joko da guraso bakarrak eta bere zaintzapean dituen bi seme-alabek osatutakoa. Halaber, guraso hori izan beharko da mantentzaile bakarra). Nahitaezkoa da zaintzapeko seme-alaben elikagai-pentsioetatik eratorritako inolako laguntza osagarririk ez jasotzea, eta diru-sarrera osagarriak dituen nukleo anitzeko etxebizitza batean parte ez izatea.	-D1; -D9; D10 -D11	Prezio publikoen % 50a itzuliko zaie.	2011.09.30

D1. Dirulaguntzaren eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dagoela egiaztatzen duen agiria; **D2.** Familia Ugaria izatearen agiria, 2011ako irailaren 30ean indarrean dagoena; **D3.** Familia-kidearen ezgaitasun maila egiaztatzen duen Foru Aldundiaren agiria; **D4.** Seme-alabatasuna jasotzen duten Familia Liburuaren orrialdeak (ikaslea ezgaitasuna duen anaia edo arreba den kasuetan); **D5.** Legez ume-ordetzat hartu izanaren ziurtagiria (balegokio); **D6.** Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzen Programan harreraren ebazpena; **D7.** Seme-alabatasuna edo ezkontidea dela jasotzen duen Familia Liburuaren orrialdeak (ikaslea ezkontide, edo seme edo alaba den kasuetan); **D8.** Epailaren epai bidez, biktima babesteko aginduaren kopia edo oinarritzako nahiz espezializatutako gizarte-zerbitzuen txostenaren kopia; **D9.** Familiaren bizilekuan elkarrekin bizi direneko ziurtagiria; **D10.** Zaintzapeko seme-alaben elikagai-pentsiotik eratorritako laguntza osagarririk jasotzen ez dela adierazten duen egiaztatzea (epaia edo, halakorik ez balego, jarritako salaketa), eta egoera hori jasotzen duen zinpeko deklarazioa edo gurasoetako baten heriotza-agiria; **D11.** Familia liburuaren kopia.

OHARRAK

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2011ako ekainaren 28ko AGINDUAK xedatutakoaren arabera, 2011-12 ikasturterako Ingeniaritzetako kredituari dagokion prezio publikoaren zenbatekoa honela banatuko da:
 - **GRADU-TITULUKO UNIBERTSITATEA IKASKETAK= Ingeniaritzak=18,29€, Hezkuntza/Ikus-entzunezko komunikazioa=13,72€;Administrazio eta Enpresen Zuzendaritza=13,72; Gastronomía eta Sukaldaritza Arteetako Gradua=18,92€**
(Adibidez: Ikaslea 60 kreditutan matrikulatu bada, prezio publikoengatik ordaindu beharrekoa 1097,40 € litzateke (hau da, 18,29€ x 60 kreditu).
 - **LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASKETAK= Ingeniaritzak=15,34€; Hezkuntza/Ikus-entzunezko komunikazioa=11,87€; Administrazio eta Enpresen Zuzendaritza=10,32€**
(Adibidez: Ikaslea 60 kreditutan matrikulatu bada, prezio publikoengatik ordaindu beharrekoa 920,40 € litzateke (hau da, 15,34€ x 60 kreditu).
 - **UNIBERTSITATE MASTERREKO IKASKETAK= Ingeniaritzak=29,89€, Lege eta Gizarte-zientzien arloa=23,62€**
(Adibidez: Ikaslea 60 kreditutan matrikulatu bada, prezio publikoengatik ordaindu beharrekoa 1793,40 € litzateke (hau da, 29,89€ x 60 kreditu).
- MONDRAGON UNIBERTSITATEAK egin ditzakeen prezio publikoen salbuespenak eta murrizpenak konpentsatzeko diru-kopuru bat jartzeko konpromisoa hartu du bere gain Eusko Jaurlaritzak. Hala ere, ikasleek eskatutako diru-laguntza guztien zenbatekoa Eusko Jaurlaritzak jarriko duen zenbatekoa baino handiagoa bada, **laguntza bakoitzagatik eman beharreko diru-kopurua proportzionalki gutxituko da diru-laguntza eman beharreko ikasle-kopuruaren arabera.**
- Ikasleari prezio publikoengatik itzuli ahal izango zaion gehieneko zenbatekoa zera da: kredituaren prezioa bider matrikulatutako kreditu-kopuruari dagokiona, nahiz eta ikasleak prezio publikoen itzulketara arrazoi bat baino gehiagoagatik eskatu dezakeen. Horrela ba, ikasle batek prezio publikoen %100 hartu badu Eusko Jaurlaritzako bekaduna izateagatik, horrez gain ezingo du Familia Ugariako kide izateagatik legokiokoeena ere hartu, edo kide elbarrituren bat dagoen familiako kide izateagatik legokiokoeena.
Arrasaten, 2011ako uztailaren 21an